

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Ekainak 14, 111. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren laguntzarekin




**MIKEL LABOA,**  
Garaiari irekia



# Zortziko

Larunbatean Kiroldegian



## Taldelan, S. L.

- Gremioen koordinazioa
- Barne-diseinurako proiektuak
- Obra-zuzendaritza

Erguin 12, Tfnoa: 77 05 97, Arrasate



# Zortziko

Euskal dantzen ikuskizuna

## ARRASATEn

**Ekainak 15**      **larunbata**  
**Kiroldegian**    **gaueko 10etan**

Sarrerak:

- Aldez aurretik: 400 PTA (Hire, Eresi, Monte eta Kajoi tabernan)
- Takilan: 500 PTA



ARRASATEko UDALA

**ARRASATE  
PRESS  
ASTEKARIA**

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

**Tirada: 7.000 ale**

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Hobegarriak gara

**A**restian jakin erazi denez, britaniar zientifiko batzuek sexu aldaketa genetikoak lotu dute arratoi pare batekin. Emeak ar bihurtzen dituen faktore genetiko bat aurkitu omen da. Hori bai, orain arte behintzat animaliak antzu geratu dira. Baina dena ibiliko da...

Horren gisako albisteek, munduko mugak non kokatu behar diren galde erazten digute eta erantzunak ez dirudi bete gaitzakeenik. Lur eta kontinente berrin aurkikuntzarako lasterketa aspaldi amitutzat eman bazen ere, bizidunengan oraindik daitezkeen izkutu eta ikergaiak ugari omen dira. Adituek diotenez, ez dakigu ia ezer gure gorputzari buruz.

Biologia omen da ikerlariak hurrengo mendean gehien garatuko duten zientzia. Gure gaurko irudimenak asma ezin dezakeen mailara helduko da injinerutza genetikoaren bitartez, denetariok aurkikuntza harrigarriak ezagutaraziz. Eta, zer esanik ez, gure mende honen hondarretan zutik dirauten kontzeptu eta balore moral askok lur joko dute. Kultur egiturak ere aurkikuntza horiek inposaturiko ikara bortitza jasango du.

Hortxe datza, zalantzarik gabe, zientziaren garapenari kontrajarriko zaion eragozpenik sendoena. Pixkanaka pixkanaka zaharkituta geratzen ari diren teoria-zutabe mardulak printzatan hasi ote zaizkien beldur, erreazio kontrolgaitzak sortuko dira. Etika, erlijioa, filosofia eta gure

pentasaren ohizko planteamenduak berrikerketa sakona beharko dute izan, zientziak aurrera dagien heinean. Gure egunerarteko aurrerakuntzaren abiadurak ez du zerikusirik edukiko etorkizun hurbilean igerriko denarekin. Gizaldiak inoiz baino argiago izan beharko du hainbat mitoren deuseztapenaren errealitatea. Baina egiaztapen horrek ez luke gizakien artera larridura ekarri beharko.

Zientzi ikerketaren bitartez, gizartea bera hobeto ezagutzera ailegatuko da. Eta garapenaren formula, berriz, bizitzaren hobekuntzatik igarotzen da: baliabide ugariago bizitza fiskorako; sentimendu barneko sakonagoa bizitza moralerako; ezagupide gehiago bizitza intelektualerako.

Garapenaren eboluzioa amaitezina izanik, horren ardatz inguruko bizitza estiloa ere aldakor bilakatzen zaigu. Historiako hastapenetatik, garapen jarraien ideiak ardua sortu du, berez tradizionala den giza izpirituan. Horixe da, ene eritziz, indar guztiz garaitu beharko genukeen sentimendu atzerakoaia.

Gizakoi eta hobegarri garen neurrian gizartean bizi gara eta gizarteari laguntzen diogun heinean gure hobekuntzarako bidean ere mailaz igotzen gara. Osterantzean, ziorik gabeko emaitza sortuko litzateke eta hipotesi horrek- dialektika onean- kontraesana adierazten du.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

**Telebegiri erantzuna**

ATBren hauteskunderi buruzko azken erreportaiaren emandako iritziei eta Arrasate Presseko ekainaren 7ko Telebegi artikuluan, Andoni Urzelaik idazten duenari erantzuna:

1. Barkamena eskatzerakoan zerbait gaizki egin duzula pentsa liteke, baina aurrera jarraituz, lehen-goari eusten diozu, eritzi subjetiboak direla esanez.

2. Eritziak azaltzeko eskubide osoak dituzun arren, komunikabide herritar baten bidez egiten direnean, uste dut besteenak ematen badituzu, horiek eskubide berdinak izango dituztela bitarteko berean bereak emateko, bestela entzule edo irakurleak alde batekoekin bakarrik geldituko lirarteke.

3. Erreportaiaren esandako parte horrekin ados ez nagoela esan nahi dizut, eta zergatik:

Alderdi baten etorkizuna ikusteko, ez dut uste nahikoa denik orain lau urteko hauteskunderekin bakarrik neurtzea, tartean izan direnak ere kontuan izan behar dira, eta orain-goarekin laugarrenak dira.

Ez da berdina hauteskunde bakoitzean beherakada bat jasatea edo beherakada bat izan (89ko europarrak), ondorengoan beherakada horri eutsi eta hurrengoetan, gutxi baina igotzen joatea. Datu bat bezala, esan, aurreko (90eko Eusko Legebiltzarrekoak) hauteskundeetatik oraingoetara Euskadi mailan EAK izan duela igoerarik handiena.. Egia da, bai, orain lau urteko Udal Hauteskunderekin konparatuz jaitsi egin gara, baina beherakada ez da oraingoa izan, lehen esan dudana bezala, 89ko europarretakoa baizik.

Aurrera begira ez dakit zer gertatuko den, goraka joatea, oraingo mailari eustea, desagertzea, beste alderdi zatiren bat guregana etortzea edo gu beste alderdiren batekin elkartzea. Baina hori gerta liteke ez gure alderdiarekin bakarrik. Baditugu gure artean beste batzuk ere, etorkizuna hain garbi ez dutenak. Euskadin politika munduan oraindik behintzat, gauzak koloka xamar daudela irudi-

tzen zait. Gure politikaren arazo gogorrena konponduko balitz, aldakuntza handiak ikusiko genituzke.

PNVn sartzearen gain, zera esango nizuke, Eusko Alkartasuneko alderdikideak oso gutxi ezagutzen dituzula, edo bestela beraiei galdetzerara gonbidatuko nizuke, zer diodan jakiteko.

Gure helburua alderdi garaile batean egotea izan balitz, geunden lekuan egon besterik ez genuen. Baina Euskadiren interesak partiduarenak baino aurreragoak zirela uste genuen eta horregatik politika abertzale baten aldekoak ginen (gogoratu LTHren inguruko eztabaidak). Orain ere hori bera da guretzat garrantzitsuena, bestela begiratu alderdi bakoitzaren jokabideari.

Eusko Alkartasuna egunen batean beste alderdiren batekin elkartzea gertatuko balitz, egon ziur alderdi abertzale batekin elkartzeko litzatekeela, eta inoiz ere ez alderdi Foralista edo Regionalista batekin.

*Jose Luis Aranburu  
Arrasateko EAKo Idazkaria.*

**Aupa Marino!**

Marinok zer daukan galdetzen duzu? Zein txirrindulari euskaldunek egin du 34 urterekin Marino Lejarretak aurten egin duena?

Gorospek ez behintzat. Hortik atera kontuak

A. Tx.



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**ARAMAIO**

**okindegia**

Maisu Guridi 3,  
Tfnoa: 79 36 46

olioak, **Artea**  
lientzoak,  
akuarelak eta  
eskulanak


Ferreñas 25. Tfnoa: 77 10 95

**ZENBAKI**


Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

ARETXABALETA



# Euskal Herrian partidu gehiegi dago?



**Jesus Garcia**  
(Pentsioduna)

Baietz esango nuke. Nire ustez, batzuk batu egin beharko lirateke, bakoitza bere aldetik ibilita ezin dutelako ezer egin.



**Maria Eugenia Basterra**  
(Idazkaria)

Bai. Bakarrik Euskal Herriko partiduak bildu beharko lirateke.



**Mari Tere Beitia**  
(Etxekoandrea)

Larregi daudela uste dut. Eskuin bat, ezker bat eta zentru bat egon beharko lirateke...eta hemen ezker asko daude, botua banandu egiten da.





**Juan Manuel Gonzalez**  
(Ikaslea)

Nire ustez, batzuk ez zeukaten zertan banandu, EA eta PNV esaterako. Bi alderdi horiek banatzearen ondorioz, jende askok Euskadiren alde ezer egiten ez duten partiduei ematen diete botua.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

LURRINGEGIA

# ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

# Memesa

# 79 42 22

# I R A T I

Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Especialista) .....	77 12 64
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazkiak .....	45 87 44
----------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZTA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILERAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINAREN ZAKO ZENTRUAK**


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

**MONTEKONGO LIBURUTEGIA**

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



**14 OSTIRALA**

- Zinea: Amaia. "Los chicos están bien", gaueko 10.30etan.
- Alai. "Misery", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- gauetz: Mozos, Bergara.

**15 LARUNBATA**

- Zinea: Alai. "Misery", 5, 7 eta 9.30etan.
- Umeen danborrada, arratsaldeko 7etan.
- "Zortziko", euskal dantzen ikuskizuna. Musakolako kiroldegian gaueko 10etan.
- "Flamenco" jaialdia, Amaia antzokian gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Morales, San Andres.
- gauetz: Camacho, Bergara.

**16 IGANDEA**

- Zinea: Alai. "Misery", 5, 7 eta 9.30etan.
- Haur dantzarien eguna.
- Makailou lehiaketa, Sebero Altuben goizeko 10etan.
- Aire zabaleko X. Pintura Lehiaketa, Monterronen goizeko 9etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**17 ASTELEHENA**

- Zinea: Alai. "Misery", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**18 ASTEARTEA**

- Zinea: Alai. "Misery", 7 eta 9.30etan
- Hitzaldia: "Depresioaren arra-

- zoiak", Famili eta Gizarte Heziketako zentruan, arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

**19 ASTEAZKENA**

- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.
- Hitzaldia: "Aurpegi eta gorputzaren zainketa", Famili eta Gizarte Heziketako zentruan, arratsaldeko 4etan.

**20 OSTEKUNA**

- AED lehiaketen liburuaren aurkezpena, 1990ean saritutako lanekin osatua. Monterronen, arratsaldeko 7etan
- Hitzaldia: "Lesbiana que no te discriminen", pleno aretoan, arratsaldeko 7etan. Bakarrik emakumeentzat.
- Goardiako farmazia: -egunez: Irizar, Erguin.
- gauetz: Estella, Bergara.

**Kirol Agenda**

**FUTBOLA**

- Beteranoen mailan, Mondra eta Euskadiko taldeen arteko partidua. Larunbatean, Atxabalpen, arratsaldeko 4.30etan.

**MENDIA**

- Besaide Mendizale Elkartek antolatutako, Anbotorako irteera, igandean goizeko 8etan.

**TXIRRINDUA**

- Arrasate-Kanpazar-Zornotza-Barazar-Kruzeta-Arrasate ibilbidea egingo dute Arrasateko Txirrindulari Elkartekoek, guztira 96 kilometro. Irteera goizeko 9etan tren geltoki zaharraren aurrean.
- Deba Garaiko zikloturista elkartek, igandeko umeen irteera antolatu du. Mazmelara joan-etorria. Irteera goizeko 10etan, tren-geltoki zaharraren aurrean.

## Liburua

### • "VI. gazteen Literatur Lehiaketa".

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen dituen Gazteen Literatur Lehiaketen emaitzak liburu txukun bitan kaleratzen dira, urtero ere. lazkoan Joseba Urzelai Inza oña-



tiarrak irabazi zuen hizlauruko sailean "Agur Alexander" ipuin luzearekin. Bertan euskaldun batek Errusian bizi izandako abenturak kontatzen zaizkigu.

## Jaiak

### • Dantzari-txiki eguna.

Aretxabaleta, Bergara, Antzuola, Soraluze, Legazpia, Oñati, Deustua, Azkoitia, Bera, Biasteri, Hazparne eta Elorrioko dantza taldeak etorriko dira igandean Arrasatera, Dantzari-txiki eguneko ospakizunetan parte hartzera. Aipatutakoez gain, Arrasateko talde biak, hau da "Lore Gazteak" eta "Txikitxu".

Beraz, hego eta iparraldeko taldeen dantzak ikusteko aukera izango da igande osoan zehar, goiz eta arratsaldean dantza egingo bait dute.

### • Danborrada.

Astero-astero Frantziskotarren kalistroetan entseietan ibili ondoren, bihar larunbatez



## ZORTZIKO

### Euskal dantzen ikuskizuna


Euskal Herriko zazpi probintzietatik jasotako dantzak osatzen duten ikuskizun paregabea ikusteko aukera izango dute, bihar larunbatez gaueko hamarretarako Musakoliako kiroldegira hurbiltzen diren guztiak. Arrazoia? Aipatutako tokian eta orduan "Zortziko" euskal dantza ikuskizunaren emanaldia eskainiko dela.

"Zortziko" ikuskizuna Kultur Bideetan kanpainaren barnean dator, Arrasateko Udalaren ekimenez hona ekarri delarik.

Aldez aurretik erosiz gero, sarrera 400 pezeta ordaindu beharko da. Horretarako, Hire, Eresi, Monte edo Kajoi tabernetan eskatzea besterik ez dago. Kiroldegian bertan, sarrera 500 pezetakoa da.

Euskal dantza ezagutzen dutenentzat eta kuriositatea dutenentzat ere, ikuskizun guztiz gomendagarria da, euskal dantzei errepaso zabal zela ikusgarria egiteaz gain, dantzariek, afizionatuak izanda, hanka-arin trebeak direlako.

arratsaldeko 7.30etatik aurrera, umeen danborrada burutuko da. Danborradaren ibilbidea honako hau izango da: Nafarroa Etorbidea-Biteri Etorbidea-Portaloia - Olarte-Kondekua-Otalaria-Garibai-Herriko Plaza-Erdiko Kale-Portaloia-Frantziskotarren Kalistroa.



• "Flamenco" jaialdia  
"Corazón de Encina" kultur-elkarte extremeñoak antolatuta, bihar gauean Amaia antzokian "Flamenco" jaialdia burutuko da, gaueko 10etatik aurrera. Jaialdian Quintanako Candidok, Paco Davilak eta Fuente Nuevak hartuko dute parte. Aipatutakoez dantza behar bezala egin dezaten, Juan A. Condek gitarra joko du.

## Lehiaketak

• Aire zabaleko margo-lehiaketa.

Famili eta Gizarte zentruak antolatutako, igandean aire zabaleko margo-lehiaketa burutuko da. Lehiaketari goizeko 9etan emango zaio hasiera, Monterronen. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Lan guztiak ordubietarako, antolatzaileen esku izan behar dira. Sarien banaketa arratsaldeko 7etan izango da, Abaroan, eta parte hartzaileak bertan egon beharko dira saria jaso ahal izateko. Hilaren 23ra arte, saritutako lan guztiakin erakusketa egingo da Abaroan bertan. Lehiaketaren irabazleak 55.000 pezeta eramango ditu.


## Hitzaldiak

### • Osasuna.

"Depresioaren arrazoiak" izenburupean, asteartean Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan hitzaldia emango da, arratsaldeko 4etan. Asteazkenean berriz, toki eta ordu berean, "Gorputzaren eta aurpegiaren zainketa" izenburuarekin beste hitzaldi bat burutuko da.

### • Lesbianismoa.

Emakumeen Asanbladak antolatutako, "Lesbiana: que no te discriminen" izenburupean, datorren ostegunean, hilak 20 Udaletxeko pleno aretoan hitzaldia emango da. Bakarrik emakumeentzat.



“ (Arrasateko esperientzia kooperatiboa) Sobiet Batasunaren zerbitzuan jarri da Madrilgo enbaxadorea, Romanovski jaunaren bitartez. Honek Lehen Ministrariari, Rizhkov jaunari Arrasate Kooperatiba Taldearen antolaketa eredu dokumentu legaletan agertzen den bezala jakin erazi zion. Sobiet Batasunera egindako bisitaldiak beti Bakea eta Justizia fundamentuetan oinarritu dira eta harremanak beti eraman dira halako Talde mugatuari dagozkion posibilitateen barruan».

(Jose Maria Ormaetxeak TU-Lankide aldizkarian)


“ Jon Iriberriren Larrosak noizean behin lana, laburra baina sakona da, uretan mugitzen den arraia eskukada batez lehenengoan harrapatzeko zailtasun berdinak dituen poesiaz betetakoa, baina behin harrapatuaz gero eskuetan arrastoa uzten diguna”.

(Felipe Juaristik El Mundo egunkarian)

“ Inor ez da harrituko Jose Antonio Ardanztzak bere buruari errazen ezagutzen dion bertutea erantzunkizunaren zentzua dela esaten badut (...), lanarekiko “ordurik gabeko” ardurarekin batera. Lan Kide Aurrezkiaren estiloa, zenbaitek deitzen dion bezala. (...) Ezaguna zen karabana eta kanpingarekiko haren zaletasun handia -oso Mondragoekoa baita-, fideltasun handiagorik landua “gizon normala” zenean, alegia, gizon publikoari dagozkion betebeharrak ez zituenean”.

(Jose Felix Azurmendi kazetariak Deia egunkarian)

Zer da Zortziko?



Zortziko euskal dantzen ikuskizuna, 1988. urtean sortu genuen. Confolens-en, Frantzian dagoen herri txiki baten alegia, orain 33 urte-tik hona, urtero dantza-jaialdia burutzen da, Europako dantza-jaialdirik famatuena. 1987. urtean jaialdi hori zuzentzen duena Baionako euskaldun batzuekin bildu zen, eta hurrengo urterako zerbait prestatzeko agindu zien. Baionatarrak nirekin jarri ziren harremanetan, ideia ona iruditu zitzaidan eta Zortziko ikuskizuna prestatu genuen.

Confolens-era joan ginenean konturatu ginen hango jendeak Euskal Herriari buruz zuen ezagutza bakarra arazo politikoarena zela, besterik ez. Dantza-emanaldia bukatu zenean izugarrizko arrakasta izan genuela konturatu ginen, prentsak ere aipamen onak egin zizkigun. Lehen emanaldia hain arrakastatsua suertatu zenez, ikuskizunari eustea pentsatu genuen. Oraindik hemen gabiltza, non-nahi dantza-emanaldi freskoa eskaintzen.

Zortziko, ballet desberdinez osatutako dantza ikuskizuna da. Ballet bakoitzak, bakarrean ere zentzua dauka eta era berean osotasunari zentzua ematen dio.

Dagoeneko hiru urte bete dira Confolens-en Zortziko lehen aldiz eskaini genuenetik; oraindik fresko-fresko dirau. Dantza-ikuskizun honen lorpen handiena, dantzari afizionatuekin maila profesionaleko ikuskizuna eskaintzea da.

Bestalde, eta bukatzeko, ezin ukatu koordinazio eta aurrez, euskal dantzen altxor aberatsean egindako ikerketa lanak, garrantzi handia izan duela.

Juan Antonio Urbeltz,  
Zortziko ikuskizunaren zuzendaria.



**IRAKASLE ESKOLA**  
E s k o r i a t z a  
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:  
1991-92 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA

Informazloa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.  
Ordutegia: 9.00-12.00 eta 15.00-18.00



**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora Z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE





1987an aukeratutako Udalbatza

## Alkate ala Alkatesa?

### Erabakia akordio zabalagoren menpe

*"Oraingoz Mondragoen ez da ezer erabaki, ze denak goiko aginduen zain gaude"*, ziren burukide jeltzale baten hitzak. Bakarrik HB egongo litzateke beste jarrera batean. Amaitzear dagoen legealdian erabili den lan banaketa eta sistema berdinak proposatzen dituen idazkia bidali die HBk gainerako alderdiei, baina ez dirudi arrakasta handirik izan duenik.

PSOE goi mailatan zer gertatuko zain dago. *"Guk dagokiguna eskatzen dugu: alkatetza. Hortik aurrera has gaitezke hitz egiten"*, zioen Lana sozialistak. EAJ eta EAekin egon bide dira, eta EEekin egotekotan. Alkatetza

lortuz gero, ez dute HB onartuko gobernu batzordean.


Jeltzaleen asmoa EA eta EEekin batera Loiti aurkeztea litzateke. EEk onartuko luke formula hori, baina EAren jarrera zein izango den ez dute garbi, Donostian-eta gertatzen denaren zain bait dago. EArentzat HBren idatzia ez da serioa, baina presidenteak zioenez, X. Zubizarretari ikusten dizkio Alkate izateko posibilitate gehien. EEren ustez, seguruenik EAJ-PSOE akordioa izango da arrasateratuko dena azkenean. *"Nor jarriko duen, Arzallusen erantzunkizuna izango da"*. Larunbat eguerdira arte, zain.

## Iturripeko kiroldegia laster amaituko

Uztailean obrak hasi eta badirudi San Juanetarako Iturripe bukatuta egon daitekeela, lanak jarritako epeetan burutzen ari bait dira. Dena dela, iraile-ra arte ezingo lirateke erabili, oraindik egokitu behar delako eta ekipamendua ere jarri behar delako.

Atletismo pista txiki bat kanpokaldean, 200 metrokoa, eta barrukaldean saskibaloian, eskubaloian, boleibolen, eta beste hainbat kirolletan jokatzeko moduko lau kantxa egin dira. Horretaz gain, harmailak, dutxak eta kafetegia ere jarri dira.

Obren aurrekontua, guztira 240 milioiokoa izan da. Aurrekontuaren %45a Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du. Kirol eraikuntzaren beste erdia, Udalaren kontu.



# Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE

□ "Uda-91" kanpaina

Uztailaren letik aurrera "Uda-91" kanpainan parte hartu nahi duen guztiak, dagoeneko izena emateko aukera zabalik dauka. Kiroldegian igeriketa, aerobic-a, eskalada, judoa, gimnasia erritmikoa, futbola, rugbia, tenisa, piraguak eta wind-surfa egiteko aukera eskaintzen du "Uda-91" kanpainak. Kanpainaren antolatzaileek, izena lehenbailehen emateko abisatu dute, tokiak mugatuak direlako. Informazio gehiago eskuratzeko nahi izanez gero, 79 04 27 telefono zenbakira deitzea besterik ez dago.

□ Autobusen geltokia

Inolako proiektu zehatzik ez badago ere, Udalak oraindik ez du baztertu Arrasaten autobus-geltokia egitea. Asmoa ahaztu ez dadin, eta noizbait egitea erabakiz gero gauzatzea posible izan dadin, aurtengo aurrekontuetan obra horri pezeta bat eskaintzea onartzen da. Arrasaten autobus-geltokia egiteko ideia Diputazioak eman zuen. Printzipioz Udalak ideia hori ondo ikusi zuen, baina oraindik kokaera dagokion ikerketa serioa egin barik dago.

□ Obrak azokan

Azokako salmenta postuei zegokien tasei buruzko erabakia hartu eta gero, Udala salmenta-postuen adjudikazioa egiteko zain dago, azokaren berritze lanei hasiera emateko. Salmenta-postuen adjudikazioa egiten denean azokako obrei hasiera emango zaie, 35 milioi pezetako aurrekontua erabiliko duten obrei hain zuzen. Berritze lanen helburuak, azoka plazaren barrukaldeko berrantolamendua egiteaz gain, saneamendu eta garbiketari dagozkien baldintzak hobetzea lirateke


# Txandaka

## ETXEBIZITZEN ALOKAIUEN PROBLEMATIKAZ

Sarri salatu da, prentsan batez ere, etxebizitzaren errentamendu edo akurapenari buruz Arrasaten gertatzen dena, hau da, demanda handia eta eskaintzarik ez. Hau nahiz eta ez izan Arrasateko arazoa bakarrik (kontuan har dezagun Deba Garaiko beste herrietan egoera ez dela askoz hobea), esan genezake Arrasaten baduela dramatismo apur bat, kontuan harturik kanpoko jende ugari pasatzen duela aste osoa Arrasaten ikasle edo langile moduan. Egoera hau harrigarria dela esan genezake, txosten askotan agertzen den bezala, Arrasaten etxe libre asko dagoela sinesten badugu behintzat.

Bi arrazoi nagusi aurkitzen ditut fenomeno hau esplikatzen. Lehenik legea ez ezagutzea. Hiri-Errentamenduen Legea edo "Ley de Arrendamientos Urbanos" delakoa da gure akurapen gehienak erregulatzen dituen araua. Lege hau 1950ean sortu zen eta, ziur aski, orduko errealtate soziologikoa kontuan harturik, jabeek egin zitzaizketen gehiegikeriak eragozten saiatu zen "nahitaezko luzamendu" edo "prorroga forzosa" delako formularen bidez, azken finean, erreterero edo maizterrari indar handia ematen ziolarik.

Egoera hau zeharo aldatu zen 1985ean "Boyer Legea" delakoarekin. Une honetan, maizterrak libre utzi



Jesus Markaide (\*)

behar du etxebizitza kontratuak esaten duen egunean eta ez du, jabearekin akordio batera iritsi gabe, inolako ahalbiderik errentamendua luzatzeko. Alderdi hau garbi dagoelakoan, goazen bigarren arrazoiarekin.

Nire ustez bigarren arrazoi -eta barka diezadala irakurleak antro-

pologia prospektiboan ez garaiko sarrera hau- etxebizitzaren euskal kontzeptuan egon daiteke oinarritua; hau da, J. M. Barandiaranek esaten duen bezala, euskal kulturaren etxebizitzak bere funtzio praktikoa gainditzen du, tenplu bezala agertuz. Eta guztiok dakigu tenplurik ez dela alokatzen. Nire asmoa ez da teoria hau defenditzea, baizik eta ondorio praktikoa ateratzea, hau da, azken finean jabea beldur dela errentariak nola zainduko ote duen etxea. Baina gaur egun badago hau garantizatzen tresnarik, eta hitzartu daiteke maizterrarekin, ohizko fidantza arruntaz gainera, aseguru-polizaren bat ere sina dezan, etxea ongi ez badu zaintzen izan litzakeen erantzunkizunetarako.

Laburbilduz, gaur egun lege nahiz kontratugintzaren aldetik badago behar hainbat garrantzia etxebizitza baten jabea errentamenduaren biktimatik bihurtu ez dadin eta bere ondareari mozkin edo irabazia atera diezaien.

(\*) *Inmobiliaria artekaria*

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Azken plenoa hasi aurretik zinegotziek argazkiak ateratzeko elkarrekin jarri ziren

## Eztabaidarik ez azken plenoan

### Urainek bertsoak kantatu legealdia amaitzeko

Legealdiko azken plenoa osatzen zuten 34 puntuak erabakitzeko, joan den ostiralean zinegotziek bakarrik ordubete inguru behar izan zuten. Plenoan ez zen inolako eztabaidarik sortu eta oso giro lasaian igaro zen. Horren erakusgarri, plenoari bukaera emateko, Pedro Urain zinegotziak bertsoak botatu zituen.

Plenoan proposatutako guztia, ia alderdi guztien oneritziarekin onartu zen.

Aurkeztu ziren gaien artean, esan behar kanposantu berriaren lehen fasea egiteko, plenoak 36 milioi pezetako proiektua onartu zuela, guztira 130 milioi balioko duen proiektuaren lehen fasearena, hain zuzen. Era berean, Ospitale zaharreko berritze lanetarako proiektuari onespina eman zioten zinegotziek, 250 milioi pezetako aurrekontua onartuz. Egin beharreko obren arloari bukaera emateko, aipagarria da Amaia antzokia berritzeko proiektua onartu

zela, 125 milioiko aurrekontuarekin. Oraindik proiektu zehatzik ez badago ere, Kurtze-Txikiko lur sailetan parke berria egiteko asmoa dago. Egitasmo hori egunen batean errealitate bihurtu da, lur sailak erosteko erabakia ere hartu zen legealdiko azken plenoan.

Obrak alde batera, Udal langileen lan-baldintzei buruzko akordioa ere ahobatez onartu zen, %7,7ko soldata igoerarekin. Udal langileek, aipatutako soldata-igoera lortzeko greba egin zutela gogora daiteke.

Azkenik, orain arte arazo ugari eman dituen azokako salmenta-postuen auziari bukaera eman zitzaion, honako tarifa hauek onartu eta gero: saltzaile finkoek, metro karratuko eta hileko 915 PTA, herriz-herrikoek 515, eta plazatik kanpo saltzen dutenek 205 PTA.

Nobedade gehiago barik, lau urteko lanari bukaera eman zitzaion. Larunbatetik aurrera, talde berria.

## Usteak uste

Joan den ostiralean esperientzia interesgarria bizi izan genuen Arrasate Pressen. Kazetari bat hartzeko deialdia egin zen. Deialdia Diputazioa eta INEMen Lan Sustapenerako Planaren barruan egiten zenez, bai enplegu bulegokoak eta bai sindikatuetakako ordezkariak present egon ziren azterketan.

Deialdia, baina, ez zen aurrekoak bezalakoa izan. Azken deialdian kazetariak emandako maila eskasa ikusita, oraingoan deialdi irekia egitea erabaki zen, Irakasletza edo Euskal Filologia, besteak beste, ikasitako jendeari aukera emanez.

Kazetaritza ikasi gabeko hamahiru kazetarigai aurkeztu ziren eta denon susmoak bete. Uste bezala, azken deialdi honetan hizkuntz eta kazetaritza maila hobea azaldu zuten kazetaritza fakultatetik igaro ez zirenek. Batzuk idazteko zaletasunean oinarrituta, bestek nonbaiten egindako praktketan, gauza da oro har kazetari tituludunek baino neurri hobea erakutsi zutela.

Eskarmentu ona izan da. Hurrengoan, hurrengorik badago, deialdia kazetari eta ez kazetarietara irekia izan beharko da

JOXE ARANZABAL

**- EZARAN -**


**ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK**

**Biteri Etorbidea 11, ARRASATE**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Urburu 24,  
Tfnoa: 79 70 39  
**ARRASATE**



Irailean hasiko dira hizkuntz perfilak aplikatzen

## Mankomunitatea euskalduntzen

### *Euskararen hizkuntz perfilak onartu berri ditu*

Maiatzaren 15ean, legealdi honetan egin zuen azken batzarrean, Deba Garaiko Mankomunitateak euskararen hizkuntz perfilak onartu zituen. Ekainaren 11n Eusko Jaurlaritzara bidali zen proposamena, behin betiko onar dezaten.

Hizkuntz perfilaren arabera, lanpostu guztiak lau mailatan sailkatu dira. Maila bakoitzari euskara-ezagupen neurri bat jarri zaio. Maila bajeanean adibidez, zabor biltzaileei eta, B mailako ulermena baino ez zaie eskatuko. Laugarren mailan, aldiz, lan hizkuntzarako maila

jasoa eskatuko zaie idazkari, kontu hartzaile, ingurugiro teknikari eta arkitektoari. Besteak tarteko mailetan daude.

Mankomunitateak 28 langile dauzka. Euskaraz ez dakiten zazpiti ez zaie araudi berria aplikatuko, 45 urte baino gehiago izateagatik. Irailean ikastaro bereziak antolatzen hasiko dira, legeak eskatzen duena bete ahal izateko. Zerbait lanpostutan, bestalde, aldaketa handiak egoten direnez, zaila ikusten da sail horiek euskaratzea.

Udal hauteskundearen ostean, uztai-lean osatuko da batzar berria.

#### Takolo konpontzekotan

Azkenean, Fagor Elektronikak Arrasateko Udalaritza Takoloko lurrak erosteko akordioa hartu zuen, obrak egin eta bidegurutzea konpontzeko. Dena dela, Udalak bidegurutzearen proiektuari buruzko erabakia ondorengo zinegotzientzat utzi du, legealdia bukatzean dago eta. Gogora daitekeenez, Diputazioa Takoloko bidegurutzea konpontzeko prest agertu zen, baldin eta Udalak lurren arazoa konpontzen bazuen. Beraz, Takoloko bidegurutzea konpontzen hasteko lehen pausuak eman dira.

#### Obrak Ospitalean

Eskualdeko Ospitaleko beheko solairuan berritze lanak egiteko, Jaurlaritzak 78 milioi pezetako aurrekontua onartu du. Berritze lanen helburuak, radiologia sailaren egoera hobetzea eta hilotzak gordetzeko tokia egitea lirateke. Bestalde, Osakidetzan azken aldian aldaketak eman direla eta, Mankomunitateak Jaurlaritzari Ospitale berria egiteko proposamena luzatuko dio.

#### JAIOTZAK

Aperribai Castillejo, *Oier*. Ekainaren 3an.  
Zuloaga Arino, *Mikel*. 4an  
Barrenetxea Carrasco, *Jon*. 7an.  
Diaz Moto, *Jasmina*. 7an.  
Vigara Balcera, *Maitane*. 9an.  
Rios Casado, *Janire*. 9an.

#### EZKONTZAK

Ramiro Martin & Mari Amaia  
Bañuelos, ekainaren 8an. Elizaz.



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



Kontzezlifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**Arrasateko Kutxaren antolaketa berria**

**Bulegoak**

**Zuzendariak**

- S. Juan Auzoa (Pymesak) ..... Pedro abarrategi
- Musakola ..... Juan Mari Sanpedro
- Munar ..... Alberto Zaitegi
- S. Andres ..... Alberto Elgezabal
- Portaloian:
  - Bezeroak ..... Jose Mari Irizar
  - Bezero bereziak ..... Eugenio Etxebeste
  - Dendariak, profesionalak ..... Jon Lasa



Jose Mari Irizar

**Aldaketak Kutxan**

*Portaloian 550 m2ko bulegoa irekitzekotan*

Gipuzkoako Kutxa eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren bategite juridiko (90eko abenduak 1) eta operatiboaren (91ko apirilak 2) ostean, Kutxak Arrasaten dituen organigrama eta zerbitzua berriztu egin dira.

Bategitearen osteko lan-estualdia gainditu ondoren, aldaketak datoz Arrasaten. S. Juan auzoko bulegoa Pymes edo enpresekin lan egiteko jarri da. Musakolan Munizipalaren bulegoa itxi egin denez, bulego bakarra geratu da. S. Andresen urtebeteko epean bulego bakarra utzi nahi da. Kanean, berriz,

Garibai kalekoa itxi egingo da eta Maisu Arano kalekoari orain Lukok duen denda (250 m2) gehituko zaio. Jesus Mari Irizarren zuzendaritzapean, bulego berriak 550 m2 izango ditu eta bere barruan hiru bulego izango: bezero arruntak atenditzekoa, bezero espezialei atentzio berezia emango diena eta dendari, zerbitzu eta profesionalak atenditzekoa. Denetara 14 langile izango dira Portaloiko bulegoan. Obrak sei hilabete barru hasiko dira. Bulego desberdinetako zuzendari eta arduradunak, bestalde, izendatuta daude.

**Autobusak Unibertsitatara**

Jakina denez, orain artean Arrasate-tik Donostia eta Bilbora joateko autobusak antolatu izan dira Unibertsitateko ikasleentzat. Badirudi, ekonomikoki zerbitzu hori ez dela bat ere errentagarria izan eta horregatik autobus enpresak kentzeko asmoa duela. Hori dela eta, guraso eta ikasle talde batek zerbitzua erabiliko luketenen zerrenda jasotzeko asmoa dauka, horrela autobusa erabiliko duten ikasleen kopurua gehitu egingo delakoan. Zerrenda horretarako izena eman nahi duenak Gazteen Informazioarako Bulegotik pasatzea besterik ez dauka, 11etatik 13etara edo 17etatik 19etara.

**Jose Letona beka**

Jose Letona bekaren 750.000 pezetak, Jose Angel Lema eta Miguel Larrañaga donostiarrei eman zaie. Jakina denez, aurten Jose Letona bekaren dirua, Parrokiako artxiboaren antolamendua eta katalogazioa egiteko zuzenduko da. Diru-laguntza nori eman erabaki denez, bi donostiarrek urte t'erdiko epea izango dute Parrokiaren antolamendua burutzeko.

**Alkatearen izendapena**

Bihar eguerdiko hamabietan udal-txean pleno berezia burutuko da, bertan zinegotzi berrien kargu hartzeaz gain, Alkate berria nor izango den jakingo da eta.

**Construcciones ARRASATE S. L.**

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

**ARRASATE**

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iretara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

## IRABAZLEAK

Telefonoa:  
ARANTZA BEITIA  
Afaria:  
GORKA DUEÑAS  
Erlojua:  
DORLETA ARANA  
Argazki makina:  
ANGEL  
ETXEBARRIA



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

# Zotz



Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01  
ARRASATE

*Erikite*

SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA


Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20  
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25  
ARRASATE

# Motz

## LEHIAKETA



**GALDERA**


Ze egunetan  
pizten da San  
Juan sua?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak  
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA  
2 lagunentzako bidaia  
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.  
(F.F)



**KATAIDE**  
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE



**BASKOTOUR**  
BIDAIAK


Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22  
ARRASATE



**MECA**  
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12  
ARRASATE

*Arrasateko Udaletxeak  
zabalik dauka atia.  
Inork etorri nahi baldin badu  
libre uzten det tokia.  
Ez dakienak ikasiko du  
zer den hemen egotia.  
Bukatu duten zinegotziei  
nere zorion guztia,  
jarraitzen duten eta berriei  
pakea eta suertia.*




Legealdiko Udalaren azken osoko bilkura bukatu eta gero, Pedro Urain zinegotzi-bertsolariari legealdiari bukaera ematea egokitu zitzaion. Horretarako, hor goian agertzen den bertsoa

eskaini zien gainontzeko zinegotziei. Gauza bera opa diegu utzi dutenei, gelditzen direnei eta datozenei.

Andaluzian bertan baleude bezala, joan den larunbatean Al-Andalusekoek **"Rocio"ko erromeria** ospatu zuten.

Goizean "Rocio"ko ama-birjinaren irudia bedeinkatu eta gero, andaluziarrez jantzitako askok Udala auzoko bidea hartu zuten.

Batzuk kamioiez, beste batzuk oinez, eta zortzikote bat zaldiz, txalo eta kantuz lagunduta iritsi ziren Udalaraino. Jai-giro egun luzea pasatu zuten Udalan. ▶



Joan den astea, jubilatuei eskainitakoa zela eta, Abaroan makina bat ekintza antolatu ziren. Jubilatuek ikusteko aukera izan zutenen artean, **San Frantzisko Xabier Ikastolako** abesbatzako umeek eskainitako kontzertua. Ikastolako umeek, **Gurutze Uribarren** zuzendariaren aginduetara, ahal zuten ondoen abestu ondoren, txalo ugari jaso zituzten.



# LASAGABASTER

## JANTZIDENDA

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE



Izen  
**PROPIOAK**



**Jose Carballo** galziarra, Orensen jaio eta normalean bertan bizi dena, Arrasatetik pasatu zen orain bi aste. Josek 64 urte dauzka, eta dagoeneko 52 daramatza **zorroztaile** lanetan. Aspaldiko erara, Jose Carballo herriz-herri ibiltzen da. Zorroztaile galziarrak adierazi zigunez, lanbide zahar honek aberasteko adina ez omen du ematen, baina "behintzat eguneroko garbantzuetarako ateratzen da". ▶

● **Jesus Mari Irizar**, 45, oñatiarra Arrasateko Kutxako arduradun berria da. Donostian Merkatarri Irakasle ikasketak egin ostean, enpresa munduan sartu zen. Ormaiztegi-ko Irizar kooperatibatik Donostiako Aurrezki Kutxa Muzipalera pasatu zen eta hemendik Kutxara, erakunde berria.

● **Xabier Erdozia**, 55, lekeitiarra Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko partaide izendatu dute, lan munduko euskalduntzean lana egiteko. Lehen mailan (Alavesen) jokatu izandako futbolista, Bilbon eta Bartzelonan Ekonomia ikasi zuen. Lan Kide Aurrezki Kontseilu Orokorrean dabil lanean.

● **Karmele Korta**, 21, **Jabi Tramon**, 25, eta **Jon Andoni Zubiaga**, 22, arrasatearrak Mondragoeko Udalak kontratatu ditu, Kultura sailak antolatzen dituen ekintzen prestakizunetan (Amaian, Monterronen...) lan egiteko.



◀ **Zotz-Motz** lehiaketako sariak jasotzera etortzerik ez zeukatela eta, ordezkariak bidali zituzten **Fernando Azurmendi** eta **Ramon Uribarrenek**. **Idurre Salgoi-Goiburu** berriz, bera agertu zen saria jasotzera eta hor duzue **Ikatz** aurrean, **Iñaki**ekin eta lehen aipatutakoen ordezkariekin.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

**arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

# Lore Gazteak dantza eta dantza

**Pertsona motel zein azkarrek dantza egiten ikas dezakete, batzuk besteak baino lehenago eta beharbada baita hobeto ere. Dena dela, batzuei eta besteei ezinbestekoa zaie irakaslea. Lan horretan ari da Lore Gazteak.**

Datorren igandean, hilak 16, Arrasaten Dantzari Txiki Eguna egiteak, Arrasateko Lore Gazteak dantza-taldeari buruz hitz egiteko-aitzakia ematen dugu. Hortaz, hurrengo lerroek orain 25 urte sortu zen dantza-taldearen inguruko kontutxoak ezagutzeko aukera eskainiko dute.

## Sorreraren inguruan

**J**on Ezpeletak, Lore Gazteak dantza-taldean aspalditik partaide denak zioenaren arabera, dantza-taldetik Arrasate erdi pasatu omen da. Ezpeletaren oroitzenak oso zehatzak ez badira ere, dantza taldearen hasierak Eskola Politeknikoan kokatzen ditu, herriko zenbait lagunek dantza egiten hastea erabaki zutenean. Eskola Politeknikotik Zigarrolako aretora, hementik ikastolara, handik... bateg daki, Lore Gazteak taldearen egoitzak askotan aldatu dira eta. Orain, ordea, badirudi Lore Gazteakoei etxe-aldaketa garaia atzean

gelditu zaiela. Denbora luzea daramate Telefonika zaharreko eraikuntzan.

Izan den tokietan izan dela, Lore Gazteak hasiera hasieratik helburu bakarra izan du: euskal dantzak lantzea. "Ahalik eta dantza gehien ikasten saiatzen gara. Berririk ez dugu asmatuko, baina guretzat

inportantea da ezagutzen direnak behintzat ez galitzea".

## Bi talde

**D**ena dela, Lore Gazteak ez da Arrasaten dagoen dantza-talde bakarra, Txikitxu ere hor dago eta. Txikitxu eta Lore Gazteak garai

bereko taldeak dira, hau da garai berean sortutakoak. Bi taldeen historian, biak bat egiten duten garai bat ere bada. Gaur egun bakoitza bere aldetik ari da, bien arteko harremanak oso onak izanda ere. "Hasieran, -dio Jon Ezpeletak- bi dantza talde sortu ziren, eta orain ere horrela gaude. Hementik urte batzutura, bat izango dela? bada, ez dakit. Umeen kopuruak zer ikusi handia dauka, umeekin lanean hasteko orduan gaitasun mugatua dugulako".

Jakina denez, bai Lore Gazteak eta baita Txikitxun ere, dantza taldeko protagonista nagusiak umeak dira. Lore Gazteak dantza taldean momentuan 100 pertsona inguru dabilta, hiru taldeetan banaturik: 9-12 urte, 12-16 urte, eta nagusiak.

## Eguneroko lana

**B**aina, zerk bultzatzen ote du umea dantzan ikasten hastera?. "Argi dago, -Jon Ezpeletaren hi-



Dantza-zaletasuna txikitatik piztu nahian

tzak- bost urterekin umeek ez dutela inolako motibaziorik izaten, gurasoek bidaltzen dituzte. Gustatzen bazaie eta onak badira, ahalegin guztiak egingo ditugu gurekin gera daitezen. Dena dela, asko dira uzten dutenak, batez ere mutilak. Neskak aurkitzeko ez dugu arazorik izaten, baina mutilak... azkenean ez da gure arazoa bakarrik, bailarako taldeena baizik”.

Dantza-taldea uzten dutenak asko direla adierazten zuen Jon Ezpeletak. Horren arabera, argi dago, taldearen izaerari eusteko, jendea joaten den neurrian, etorri ere egin behar izaten dela. Jendea erakartzeko, urtean zehar, Lore Gazteakekoek hainbat ikastaro antolatzen dituzte. Ikastaroak zabalak izaten dira. Joateko aukera edozeini ematen zaio. Arin-arin eta fandangoa erakusten dira normalean, jendeak samurren ikas ditzakeen dantzak hain zuzen. Ikastaro horietan, norbaitek azkartasuna eta gogoia erakutsiz gero, Lore Gazteak taldeko atea zabalik izango ditu.

Lanik handiena ez da taldean sartzea. Irakasten dutenek egunero daukate lana, umeek behintzat astean behin entseia daukate eta. Izan ere, Lore Gaztearen eguneroko lanari garrantzi handia ematen zaio, plazaratzeko orduan ahalik eta ikuskizun koordinatu eta



25 urteko lan eskerga

hoberena eskaintzeko. *“Taldean sartu eta garbi uzten dugun lehen gauza da, -dio Jon Ezpeletak- entseioetara ez datorrenak gero dantza egiteko aukerarik ez duela izango”.*

#### Giro aldatua

**P**lazaratzeko entseiatu egin behar, baina bazuetan, nahiz eta entseietan ibili, ikasitakoa erakusteko aukera larregirik ez

dute izaten dantzariak. Herrietako jaien barnean egiten diren euskal jaietan izan ezik, dantza-taldeak oso gutxitan plazaratzen dira.

Aipatutako euskal jaietan ere, urteak pasatu ahala ikusle kopurua beheraka doa, eta dantzarako ez da girorik aiposena aurkitzen. Ondorioz, motibazioa ere beheraka doa.

Antolakuntza aldetik, euskal jaiak gero eta zailtasun gehiago erakusten ditu. *“Lehen, -zioen Jon Ezpeletak- ez zen arazorik izaten. Orain, umeak etxeetara bazkaltzera eramateko ere ez dugu jenderik aurkitzen. Kasu honetan, borondate onenarekin datorrenaz aprobetxatzen gara, eta bazkaltzeko bi eskatu baditu hiru sartzen dizkiogu. Ez dugu beste irtenbiderik. Espero dezagun igandekoan horrelakorik ez gertatzea. Eta dantzarako gogoia duenak badaki non gauden”.*

## Atzerrira egindako bidaiak

**D**antza talde askok egin duten moduan, Lore Gazteak taldeko dantzariak ere, hemen ibiltzeaz gain, atzerrian izanak dira. Zehazki esateko, Italiako Ortonobo herrian, bi urtetan. Arazoak arazo, ekindako bideari utzi egin zitzaion: italiarrekin hasitako harremanei ez zitzaion eutsi, bidaiak egiteko dirulaguntza handiegirik ez zegoen, eta oporraldietako egunak ez ziren egokienak jendearentzat dantza-taldearekin bidaiatzeko. Italiako esperientzia txarra ez bazen izan ere, ez dirudi, aipatutako arrazoientatik, errepikatuko denik.

Esan beharrik ez dago bidaiak haiek arrasatearentzat arrakastatsuak izan zirela. Euskaldunok gaur egun zerbait esportagarri badaukagu, hori euskal-dantza da. Euskal dantzen bizitasunak eta pausoen barietateak, erakargarriak dira dantza lasai eta monotonoak ikusteko ohiura duten begi europarrentzat.

**UGARTE**

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

**URRATS**

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,  
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

**ALTUNA**

Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria

Maalako Errabala  
Tfnoa: 79 14 23



## MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97


Goian Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



**PEÑACOBIA**

Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01


ARRASATE

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,  
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Fotokopiak  
Enkoadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23

# Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

## ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Argazkiak: Jabier

# Omenaldia eta jaigiroa Atxabalpen

**Erreal**a eta **Real Madril** **Atxabalpen**. **Seguruen**, **orain 25 urte inork ez** **zuen pentsatuko ha-** **lakorik gertatuko ze-** **nik. Dena dela, Arra-**

**satera etorri ziren bi** **taldeak lehen mai-** **lakoak izanik, hiruga-** **rren mailako ikuski-** **zuna eskaini zuten.** **Partiduari hasiera**

**eman aurretik argi ze-** **goen adiskidetasunez-** **koa zela. Jokoak ar-** **giago erakutsi zuen,** **baina hala ere, jendea** **gustora.**

**Dena kirola**  
**egiteko**




**LORAMENDI**  
**KIROLAK**



■ Mondraren 25. urteurrena dela eta, azkenaldian **Jose Luis Etxebarria "Porru"**, Mondrako lehendaria sarritan elkarrizketatu da Errealeko agintariekin ekintzak eta, antolatzeko. Asteazkenean ere berba egiteko aprobetxatu zuten. Argazkian "Porru" eta **Luis Arkonada**, Antzuolako plazan umez inguraturik.



■ Futbola eta pilota. Bi mundu, bakoitza bere izarrekin. Izar asko eta distiratsuak bildu ziren Antzuolako *Danok Bat* elkartean, Cesareo Gabarainek berak sortutako elkartean hain zuten. **Joxe Arriaran** eta **Santi Etxebarria Zurdo**, **Emilio Butragueño**, Real Madrileko aurtengo pitxitxiarekin elkartu ziren. Zein baino zein poziago.



■ Arrasateko Parrokiako Koruak ere joan ziren Antzuolara Cesareo Gabarainen omenez abestera. Bertako parrokiari '*Juntos como hermanos*' eta '*El pescador de hombres*' abestu zituzten. Kanposantuan, berriz, '*La muerte no es el final*', guztiak ere Cesareok konposatuak. Argazkian **Rafa Fernandez Aresti**, **Patxi Nafarrate**, **Felix Arriaran** eta **Fernando Aranburu Fertzxu**.



■ **Higinia** eta **Beatriz**ek, Cesareo Gabarainen ama eta arrebak, sari ugari jaso zituzten. Besteak beste, Donostiako Errealak, Real Madrilek, Mondrak, Arrasate, eta Antzuolako Udalek sariak eskani zituzten. Argazkian, **Chendo**, Real Madrileko jokalaria Beatriz Gabaraini platera oparitzen. Ama, begira.

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2  
Tfnoa 79 29 91  
ARRASATE




Erreala, Real Madril, arbitroak eta Cesareo Gabarainen familiakoak, partidua hasi aurretik elkarrekin jarri ziren argazkia ateratzeko. Ondoren, ohorezko sakea Beatriz Gabarainek egingo zuen. Beranduago Cesareo Gabarain zenaren alde ikusleek minutu bateko isiltasuna gorde zuten.



Atxabalpen bildu zirenek ez zuten **Dalian Atkinson**-en jokoa zuzenean ikusteko aukerarik izan. **John Aldridge** ostera, Atxabalpera etorri zen. Arrasatearrek irlandarrak Errealarekin jokatu dituen azken minutuak ikusteko aukera izan zuten. Errealeko golea-tzaileak ez zuten golik lortu, baina gertu ibili zen.



Lehen mailako jokalaria ugari ikusteak, jende asko erakarri zuen Atxabalpera, inoiz baino gehiago seguruen. Eguraldiak ere lagundu egin zuen eta gogoz berotu ere bai. Adiskidetasun partidua zenez, jokoiari konpetizio ofizialak duen sua falta izan zitzaion. Dena dela, ligako partidua izango balitz bezala, **Juan Antonio Larrañaga** Atxabalpen ere txuri-urdinen kapitai.



**Roberto Lopez** Ufarte, Errealeko "deabru txikia" pertsonalki ezagutu zuen Cesareo Gabarain, baita haren adiskide galanta egin. Hori dela eta, irundarrak ez zuten hutsik egin Atxabalpeko partidura eta bigarren zatian minutu batzuk jokatu zituen. Futbolari profesionala izateari aspaldi utzi bazion ere, Lopez Ufartek argi utzi zuen oraindik bere hankak urrezkoak direla.

**AUTO  
ESKOLA**


# ARRASATE

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# Mikel Laboa

k a n t a l d i a



**Amaia antzokian**

**Ekainak 22,  
larunbata**

**Gaueko 10.30etan**

**Sarrerak:**

- Aidez aurretik: 400 PTA  
(ohizko tokietan)
- Takilan: 500 PTA

**Antolatzailea:**

**"Maritxu Kajoi Batzordea"**

**Laguntzailea:**

**Jai Batzordea**



**E**kainaren 22an Arrasaten kantatuko du Mikel Laboak, aspaldiko partez.

Aitzakia horrekin elkarrizketa eskatu nion, banekien arren horrelakoen oso zalea ez dela. Donostiako bere etxean mintzatu garenean, inguruarekiko irekitasuna nabaritu diot Mikeli, bizi duen garaiarekiko kidetasuna, bere irudi publikoari darion bakartasun iheskorretik oso urrun.

— Egia da ez naizela eroso sentitzen elkarrizketetan, irradian edo telebistan. Ez daukat hitz egiteko erraztasun handirik, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Agian horregatik emango nion zenbait buelta komunikazio/inkomunikazio gaiari. Dena den, familiarik datorkit nonbait kontu hau, nire aita ere ez omen zen oso hizlari trebea. Errepublikara garaietan zinegotzi izan zenean “pico de oro” esaten omen zioten!


— Has gaitezen hurbiletetik, hau da, Bilbon duela gutxi Ruper, Hertzainak, Atxaga, Oskorri etabarrek eman duzun kontzertutik.

— Iaz Kubara egin genuen bidaiarekin hasi zen guztia. Lehendik harreman estuak neuzkan Ruper eta Zumetarekin, Hertzainak eta Atxagarekin ere bai, eta aukera hori sortu zenean lagun giroan joan ginen. Gero, han geundela, norbaitek esan zuen bueltan ere egin behar genukeela zerbait elkarrekin eta horrela etorri da Bilbokoa. Aurrerantzean hortik zer espero daitekeen..., ez dakit. Nik, izan ditudan esperientziengatik edo, badiet beldur pixkat taldeei, baina ikusi egin behar. Ez dugu oraindik horretaz hitz egin.

— Gazteen artean oso eskimatua zara, duela gutxi zure

Mikel Laboa

## Garaiari irekia dagoen gizona



kantuen bertsio heavy, rock edo raperoak agertu dira “Txerokee” diskoan.

— Bai, interesgarria iruditu zait disko hori eta, bertsio bat edo beste kenduta, gustatzen zait. Gainera, diskoak adierazten du konexiorik badagoela gu eta gazteagoen artean, nik badakit gure kontzertuetara jende oso gaztea ere etortzen dela. Gazteek bizitza osoa daukate aurretik gauza berriak aurkitzeko eta gure belaunaldira behintzat iritsi dira.

— Azkenaldi honetan, zure musikan jazz-aren sonoridadeak aurki daitezke.

— Nik mota guztietako

musika entzuten dut, klasikoa, garaikideak, jazz... Baita nire semeak asko maite duen Jingo de Lunch ere! Jazz-aren aspaldiko zalea naiz, Trinitate enparantzan egiten ziren lehen jazzaldi haietan hasi nintzen jazz-a ezagutzen. Lehen garai haietan, orain hogeitaka urte, musiko handiak etorri ziren Donostiara. Orain bai, Iñaki Salvadorrekin nabilenetik jazz-a sartu egin da nire musikan, hor dago azken diskoan beraiek jotzen duten “Round midnight” instrumentala, adibidez. Bai Iñaki edo Josetxo (Silguero) oso musikari onak dira, pres-

takuntza handikoak. Gainera, nik uste dut jazz-aren ingurutik datozen musikoak irekiagoak izaten direla besteak baino. Askatasun handiagoz jotzen dute, inprobisatzen ohituak daudelako, eta agian horregatik hobeto egokitzen dira gure estilora.

—Kantuen hitzak ez dituzte zeuk idazten


—Ez, bigarren disko txikian hasi nintzen Arestiren poema batekin, eta geroztik Artze, Lete, Atxaga, Sarrionaindia eta abarren poemak erabili izan ditut kantuek egiteko. Marisol emazteak laguntzen dit sarritan poemak aukeratzen.

— Zure kantagintzan gertatu izan dira geldialdi nahiko luzeak, baina orain oso aktibo zaude.

— Beno, orain urte batzuk kantaldiak utzi egin nituen diskoa grabatzeko asmoz eta gero ez dakit zenbat denbora pasatu nuen diskoa grabatu gabe. Baina geldialdiak normalak dira, besteei ere gertatzen zaie. Niri kantuek sortzea kostatu egiten zait eta estudioan sartzea ere bai, baina kantagintza erabat uzterik ez dut inoiz pentsatu. Orain proposatu didate disko bikoitz batean nire kantuen bilduma egitea, baina ez dakit hori egin ala denbora gehiago hartu eta disko berria prestatzen hasiko naizen. Edozein kasutan, uste dut laster kantaldiak utzi egingo ditudala aldi baterako. Orain ere, hilean bi kantaldi baino gehiago ez dut ematen, Euskal Herria txikia da eta ezin dugu gaur hemen eta bihar aldameneko herrian kantatuz ibili. Horregatik uste dut inportantea dela kanpoan ere kantatzea, batez ere gazteen artean, nahiz eta Estatuan zailtasun handiak dauden. Agian orain Europan...

MIKEL IRIZAR

“**Laster kantaldiak utzi egingo ditut aldi baterako**”



### Atletismoan dominak

Joan den asteburuan, Iruñean, junior mailako Euskadi eta Gipuzkoako txapelketak biak batera burutu ziren. Txapelketa horretan, arrasatearrek urrezko lau domina eta brontzezko bi atera zituzten. Oskar Ramosek mailua 34 metro eta 34 zentimetro-raino jaurti zuen, Euskadi eta Gipuzkoako txapela lortuz. Mikel Iturbek, berriz, disko jaurtiketan 35,85 metro-ekin Gipuzkoako txapela lortu zuen. Jaurtiketak alde batera, Aitor Arnaizek 200 metroetan 22,90 markarekin Gipuzkoako urrezko domina lortu zuen, eta 100 metroetan brontzezkoa, 11,39 markakin. Azkenik, pertika jauzian Javier Blancok 3,20ko jauzia egin zuen, eta ondorioz Gipuzkoako hirugarrena izan zen.



### Mondra-Euskadi

Bihar arratsaldeko 4.30etatik aurrera ikuskizun polita izango da Atxabalpen, veterano mailan Mondra eta Euskadiko selekzioaren arteko partidua. Alberto Ormaetxea Euskadiko selekzioaren entrenatzaile izango dira eta "Bomba" Mondrarena. Inaxio Kortabarriak Mondrarekin jokatu du eta bere ondoan Elizaran, Narbaiza, Bitoriano... eta beste batzuk izango ditu; aurrean berriz, Satrustegi, Zamora, Dani, Amorrortu...



### Neskek 2. mailako finala

Mondrako nesken taldeak larunbatean Zumarragan bigarren mailako finala jokatu du, Donostiako Alde Zaharra taldearen aurka. Partiduari arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera, eta arrasatearrentzat zaila izango da irabaztea, eurek bezala, donostiarrek ere partidurik ez dutelako galdu.



# ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tinoa: 76 40 50 BERGARA

## PODIUMA

PATXI  
GOROSABEL

Bizitza-erdi rugbyan



**H**asiera hasieratik ez, baina ia bai", zioen Patxi Gorosabelek Arrasateko Rugby taldean noiztik dagoen galderari erantzuteko. Izan ere, Patxi 32 urte dauzka eta horietatik 17 rugby jokatzeko egin ditu. Musakolako Zabaleta baserrian jaio zen mutil honek, 1,91 metro ditu eta 110 kilo inguru dauzka. Beraz, rugby jokalariek izan behar duten itxura duela esan daiteke. "Beno, aurrekaldian jokatzeko dutenek, azkartasunaz gain, pisu eta indar handia izan behar dute, melee-etan gehiago bultzatzeko. Atzekalde eta erdialdeko gizonengan horrek ez du hainbeste garrantzirik, teknikari gehiago begiratzen zaio eta".

Aurtengo denboraldia ez da zeharo ona izan arrasatearrentzat, batez ere hasieran. Azkenean, justu-justu izan bada ere, kategoriari eutsi egin zaio eta datorren denboraldian taldeak berri Euskadi mailan jokatu du. "Normala da denboraldiaren hasiera txarra izatea, zelairik ez ezan kanpoan jokatu behar izan gendelako. Galizen hasi ginen, eta hasiera txarri segida okerragoa eman genion. Garagartzako zelaiaren jokatzeko hasi ginenean, gauzak hobetu ziren eta azkenean kategoriari eutsi ahal izan genion".

Rugbyko beste hainbat jokalariri bezala, Patxi Gorosabeli ez zaizkio ahotik lorerik ateratzen rugby-zelaiaren egoerari buruz mintzatzekoan. "Hori ez da zelaia, ezta patata saila ere. Okerragoa da. Badira hiru urte rugby-zelaia egiteko proiektua onartuta dagoela, baina pausu honetan jarraituz gero beste hiru pasatuko dira egin aurretik. Hortaz, oso posible da nik bertan ez jokatzea".

Erretiroan pentsatzen ari da Patxi Gorosabel. Baliteke datorrena bere azken denboraldia izatea rugby jokari moduan, atzetik jendea indarrez datorkio eta. Dena dela, bizitza-erdi rugby-ari eskaini dion mutilak ezin izango dio bapatean utzi, eta baliteke Arrasateko rugby taldeko entrenatzaile bera izatea. "Aurten utzi nahi nuen, baina lagunak beste denboraldi bat egiteko komentatu ninduen". Ez da arraroa Patxiaren lagunak lan horretan aritzea. Arrasateko jokalariek diotenez, Patxi taldean karisma handien duen jokalaria bait da.

## ◆ Txirrindulariak saririk barik

Txirrinduaren munduan Euskadiko bi txapelketa burutu dira joan den aste-buruan: bata kadete mailan eta bestea gaztetan. Kadeteen lasterketa Etxarri-Aranazen burutu zen, txirrindulariei 58 kilometroko ibilbidea jarri zitzaielarik. Lasterketa oso polita izan zen, baina arrasatearrek ez zuten lehen postuetan sartzerik izan; Zigor Urain 12.a izan zen eta Jose Miguel Elizburu 13.

Gazteen lasterketa berriz, Zallan burutu zen. Irteeran 111 txirrindulari eta horien artean Fagor-Dorleta taldekoak. 99 kilometro burutu ondoren, ozta-ozta izan bazen ere, arrasatearrek ez zuten podiumera igotzerik lortu. Ruben Ramos 5., Iñigo Roldan 10. eta Eneko Garai 15. sailkatu ziren.

## ◆ Paleta txapelketako finala

Joan den asteburuan, Musakolako frontoian Arrasate Kirol Elkarteak eta Aukeak antolatzen duten paleta txapelketako azken partidua jokatu zen. Partidua oso borrokatua izan zen. Azkenean Herrera eta Arregik osatzen duten bikoteak 35 eta 29 irabazi zion De Arriba-Bollain bikoteari. Garaile biak garaikurra, txapela eta Palmarako bidaia irabazi zuten. Zoriona biei, eta bidaia ona!



Txapeldunak sariak jasotzen

Berango

Sukalde-altzariak,  
mahaiak eta  
aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

# Muskuluen lesioak: hematomak

**A**riketa fisikoa egitean, muskuluak odol asko biltzen du; horregatik, lesionatzen denean, erraza da muskulu barruan odoljario edo hemorragia agertzea.

Beraz, etendura muskularra gertatzen denean, ondorengo 72 ordutan hematoma agertzen den ala ez ikusi behar da. Minak eta handitasunak iraun egiten badute eta kontrakzio-ahalmena ez bada erreuperatzen, baliteke odoljarioa egotea. Oso garrantzitsua izaten da diagnostiko egokia; bestela, ondorio txarrak ekar ditzake, eta batzuetan garrantzi handikoak, gainera.

Sarri agertzen den ar-



zoa, odoljarioa dagoen inguruan orbain-ehuna sortzea izaten da, eta honek muskuluen kontrakzio-funtzioa gutxitzeaz gain, etendura eta odoljario berriak sor ditzake, eta batzuetan kirurgiaren bidez kendu behar izaten da.

Beste arazo bat "miositis osifikantea" izaten da. Kasu honetan, hematomaren odola kaltzifikatu egiten da, hau

da, hezur bihurtzen da, arazo askorekin. Lesio muskularra dagoenean, 10 aste igaro ondoren muskuluen funtzioa eta zalutasuna ez badira normalak, X izpien edo EKO baten bidez ikustea komeni da, hezurtzapen edo osifikazioa gertatu den ala ez aztertzeko. Honelakorik agertzen bada, ebaketa egin behar izaten da hezurtzapen-gune hori

kentzeko. Beraz, kontuz ibili lesio muskularrekin! Eten-dura muskularra izan duen edonork ariketa gogor eta luzeak ekidin edo ebitatu behar ditu guztiz erreuperatu arte, mugitzerakoan minik ez sentitzera iritsi arte, alegia.

Etendako muskuluak 3-12 aste bitartean behar ditu orbaintzeko, etenduraren lokalizazio eta zabaleraren arabera, beti ere. Berritokirola egiten hastean, derrigorezkoak dira girotze eta berotze ariketak, poliki-poliki gehitu behar delarik iharduera muskularra. Ariketa guztiekin amaitu ondoren, berriz, guztiz egokia izaten da erlaxapen-aldi bat.

*Eukeni & Arantxa*

## Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL

Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK  
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21  
Ordezkaritza: Labegarieta z/g, Tfnoa: 76 53 69

# Batuta

## Norton

"Norton"ek euskara eskolak ematen ditu AEKn. Orain astebete Amaia antzokian Deba Garaiko hirugarren txapelketa ikusi asmoz bildu zirenek, euskara irakasteaz gain, musika munduan ere zerbait badela ikusi ahal izan zuten. Eibartarra jaiotzez, 23 urte, eta egun "Euskal Herriko Sukarra" taldean ahotsa jarri eta kantak konposatzen dituen da.

Azken urteotan euskal rock-aren munduan sartuta badabil ere, "Norton"en hasierak oso bestelakoak izan ziren musikari dagokionez. *"Sei urte nituela, etxean zegoen piano zaharra jotzen hasi nintzen, belarriz. Musikarako zaletasuna nuela eta, gurasoek solfeoa ikastera bidali ninduten. Piano ikasketak ere egin nituen. Geroztik neure kontu musika-tresna ugari ikasi ditut: gitarra, flauta, txalaparta, perkusioa..."*

Deba Garaiko txiste txapelketan egin zuen ekitaldia ez da, "Norton"ek jendaurrean egin duen lehena. *"Aurretik taldearekin kontzertu asko eman izan ditugu. Horretaz gain, lagun artean eta udalekueetan umeen inguruan askotan gitarra jo eta kantatu*



*du"*. Ohituta egonda ere, jendaurrean baino, askotan entseietan hobeto pasatzen duela dio "Norton"ek. *"Musikarekin gozatu egiten dut, batzuetan besteetan baino gehiago. Buruz eta gorputzez ondo banago, berdin zait jendaurrean edo entseietan jotzea"*.

Lehen esan bezala, "Norton"ek EH Sukarra taldean gitarra jo eta kantatzen du, kantu guztien konposatzailea izateaz gain. Hala eta guztiz ere, musika klasikoa oso gustoko duela aitortzen du, berak hartu duen bidea beste bat bada ere. *"Musika klasikoa gustatzen zait, baina hor ere denetarik dagoela esan behar da. Hori bai, orain ez dut bat ere entzuten. Orain kalean eta tabernetan entzun daitekeen musika entzuten dut batez ere"*.

Neure kontu musika-tresna ugari jotzen ikasi dut.

## Txio txioak

■ Beatriz Arzamendi arrasatearrak, Arrasate Musikaleko Orkestrako partaide ohiak, Albina Madinabeitiari eskainitako kontzertuan Arrasate Musikaleko Orkestra zuzendu zuen. Omenaldi honetan Beatriz Arzamendik konposatutako "Mendiko ahotsak" lanaren estreinaldia egin zuen.

Arrasate Musikalen musikako lehen ikastaldiak egin ondoren, Beatriz Arzamendi Madrilera joan zen bibolin ikasketak betetzera. Bibolina ikasten zegoela, Madrilera Udal-Liburutegiko orkestraren partaidea izan zen.

Madrilen bertan, abesbatzak zuzentzeko ikasketak burutu zituen Beatriz Arzamendik, baita konposizio ikasketak ere. Ikasturtearen bukaeran, egin dako lanagatik ohorezko aipamena eman zioten. Orain, Garcia Asensio famatuaren aginduetara, orkestra-zuzendari izateko ikasketak burutzen ari da.



Beatriz Arzamendi

## BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktiak

Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

## EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

# Hizkuntz legeak

## Legeriaren garrantzia

Ez dago inongo zalantzarik, aldeko legeriak hizkuntza baten hedapenari lagun diezaiokeen bezala, kontrako legeriak murriztea lagun dezake.

Baina argi dago, baita, legeria ez dela, berez, faktorerik garrantzitsuena, eta hor daukagu bestela Irlandako eta Finlandiako kasuak, hurrengoetan aztergai izango ditugunak.

Legeria linguistikoa, kon-  
testu sozialaren azpitik dago. Jarrerak, pentsakerak, ohiturak, etabarrek, zenbait testu legalek baino indar handiagoa dute. Hau horrela izanik,

zenbait herrialdek, minoria linguistikoei lagundu asmoz, euren hizkuntzen aldeko diskriminazio positiborantz jotute; izan ere, diskriminazio positibo honen bitartez, berdintasunezko printzipioan oinarriturik, sozialki gutxiagotasunean dagoenari laguntzen zaio, gradualki igotzen da, benetako berdintasunera iritsi ahal izateko.

## Eskubide linguistiko pertsonalak

Eskubide hau, gizakiari berari bakarrik dagokion eskubidean oinarritzen da, eta norberaren hizkuntzagatik diskriminatua ez izatea da bere funtsa.

Askotan eta askotan, eskubide pertsonal honek, gehiengoaren alde jotzen du, eta ez-diskriminazio pertsonal hori elebakartasun estatalaren sinonimo bihurtzen da, horixe izan da, hain zuzen, gutxiengo linguistikoei eskubide kolektiboa ukatzeko sarritan erabilitako azpi-jokoa.

## Eskubide kolektiboak

Eskubide kolektiboa, bestalde, ez da pertsonari, gizaki isolatu bezala, eskubide bat ematea, baizik eta talde linguistiko oso bati bere bizitza publiko nahiz ofiziala, bere hizkuntzan egin ahal izateko eskubidea ematea da, horrela komunitate eta hiz-

kuntza horren existentzia garantizatzen delarik.

Eskubide pertsonalak gordetzen saiatu direnen frakasoa ikusirik (horra hor Belgikaren kasua), lurraldetasun linguistikoa ezarri behar izan dute eta eskubide kolektiboak onartu. Oraingoz, hau eta beste zenbait adibide ikusirik, lurraldetasun linguistikoaren ezarpena eta eskubide kolektiboak onartzea daiteke berdintasuna lortzeko era bakarra.

Eskubide pertsonalak salbatu nahi izatean, eskubide kolektiboen aurka egingo genuke, eta libere indibiduala garantizatzeak, kolektibitate osoaren diskriminazioa lekarke.

Atalataikoan




# Patterncam

**EREDUAK,  
MAKETAK ETA  
KONTROL-TRESNERIA  
CAD-CAM  
BIDEZ**

Musakola auzoa 26,  
Kataide Industrialdea. 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06  
ARRASATE



Argazkia: Joseba



erritarren txalo beroak jaso zituen igandean Albina Madinabeitiak. Bibolina eskuan zuela, -berak ere parte hartu nahi izan bait zuen igandeko festa handian-, irribarrerik gozoenaz erantzun zien Amaia antzokiko lagun guztien onespen eta eskerronari.

Denetara ia ehun musikariz inguratuta agertu zen.

Zartzuelak, sinfoniak eta mendiko ahots hezeak jabetu ziren antzokiaz. Ondoren Albinaren erregalorik ederrera: Mozarten Minuetoa. Zortzi urterekinartzelona-ra ikastera irten zen neskati-latxoak hirurogeitamalau urte beranduago eskaintako solo zoragarria.

Eskerrrik asko eta zorionak, Albina!

### 100 SERIEKO ROVER BERRIA

## ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.

**M**iresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-aneleazio arinaz eginga 95CVko indarra eman liezaiokeena.

**E**ta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

**A**usartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. \*



100 SERIEKO ROVER BERRIA  
ROVER 100 x 100



CREDIT



\* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garrato-gastuak barme. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko llantak. Aurreko lehoen jasagailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dotzaintza lunbarra. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.

# Arrasateko III. Mendi-bizikleta ibilaldia

**G**ogoratuko duzue hauteskunde egunean, Besaide Mendi Elkar-teak antolatutako ibilbidea. Inor gutxik uste zuen eguraldia izan genuen. Goizeko 8.30etan denok kiroldegian genuen zitara ezin falta eta inguruko makinatxo bat etorri zen: Oñati, Bergara, Aretxabaleta, Aramaixo, Elorriko, Durango eta bertakook.

30-60 lagun bildu ginen kiroldegira eta 9ak aldera, Portaloian bertan eman zitzaion hasiera 1991ko ibilbideari.

Zarugalde aldera hartu eta Lan Kide Aurrezkian Olandixo aldera hartu genuen: hasierako maldak, beti, gogo-



rrenak izan ohi dira eta halaxe izan zen, baina esaerak dioen bezala: "gustoko lekuan aldarparik ez". Untzillara heldu, auzoa zeharkatu eta Kurtzetarajo genuen, Asentzio eta San Adrianetik gora, Aramaio eta Leintz bailaretako mugetatik zehar.

Kurtzetatik Jarindorako bidea hartu eta erripa hasi bai-

no lehenago Marinerako bidea hartu. Marin auzoaren gainekaldetik doan trenbidearekin tril egin eta berori hartu Gatzagara heldu arte. Aurreko astean Hankamotzekoek zioten bezala, bi tunel pasatu beharra dago: bigarrenean piperrik ere ez da ikusten, baina aurrera eta aurrera

egin beharra dago; ez dago oztopo egiteko ezer eta lasai igaro daiteke.

Halako batean heldu ginen Gatzaga gainera, baina baserri baten ondoan, han zeuden Besaidekoak gertu, hamarretakoarekin, goizeko 11etan. Denetik ekarri zuten gure neska-mutilek: aska bat zegoen, gailetak, fruta...

Indar berriak hartu eta Gatzagako tren-geltoki zaharretik igaro eta kamineruen etxetik gora Uxaraldera hartu eta Bolibar-Eraña eta Mendiola. Mendiolatik behera Arrasatera 12, 12.30 eta ordubatean; Musakolako San Isidro elkartean luntxa izan genuen. Datorren urtekoa gertu ez, baina asmo berriak agertu dira. Ea ba.

K. U.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAK

(Aretxabaleta-Eskoriatza)

## UDAKO IKASTARO TRINKOA

aurkezten du.

- Egunean 5 eskola ordu
- 5.200 PTA matrikula
- Ekainaren 27an hasteko

Informazio gehiago:

- 79 21 68 tfnoan.

Goizez (9-1)

Arratsaldez (14.00-19.00)

**Durana 11, ARETXABALETA**  
**Fernando Enparantza, ESKORIATZA**





# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aste gazte

"Emakumetasunak eragozpen gogorrak jartzen dizkie neska gazteei beren eguneroko bizimodua garatu ahal izateko. Aurreiritzi sozial gehienak gaintzen hasten dira egia bada ere, famili harremanetan oraindik ematen dira joera diskriminatzaileak". (jarraituko du).

"El Fungible" aldizkaria.



Bekak

- Doktorego-tesiak eta bibliografi lanak egiteko dirulaguntzak. Modalitateak: a) bibliografi bilketak, b) doktorego-tesiak, c) irakurketa monografikoen bilketak. Dirulaguntzak: 175.000-200.000 PTA. Epea: ekainak 29 (BOE 91-05-14).
- Enpresa-heziketak sakontzeko postgraduatuentzako bekak (Saiolan). Modalitateak: a) teknika-enpresa arloan heziketa, b) enpresa berriak sortzeko. Dirulaguntzak: 1.200.000 PTA. Epea: ekainak 30.

- Ikertzailegoa trebatzeko bekak. Eskatzaileak: ekonomia, Zuzenbidea, soziologia, Politika, Zientziak, Estatistika edo Informatikan lizentziatuak. Dirulaguntza: 135.000 PTA hilero, aseguru eta istripu poliza. Iraupena: urtebete. Epea: uztailak 20.

Ikastaroak

- Natura Heziketan monitoreak trebatzeko ikastaroa. Gipuzkoako Diputazioak antolatuta. Nori zuzendua: Magisteritza, Pedagogia, Biologia, Geologia etabarreko ikasketak burutu dituzten eta euskaraz dakiten gazteei. Noiz: uztailak 1-12. Non: Pagoetan. Matrikula: 15.000 PTA (alajamendua, mantenua, materiala, etab. barne). Plaza mugatuak.
- Ingeles ikastaro trinkoa, Bergarako UNEDen. Ekainak 24-uztailak 12. As-telehenetik ostiralera, eguneroko 4 ordu. Inskripzioak: ekainaren 20ra arte. Matrikula: 20.500 PTA.

Lehiaketak

- "Ciudad de Cuenca" gazte lehiaketak. 21 urtetik beherako gazteei zuzenduak. Modalitateak: a) Poesia. Gazteleraz. Gai libre. Sariak: 150.000, domina, diploma eta lanaren argitalpena. 50.000 PTAko akzesita. b) Ipuina. Gai libre. 3-8 orrialde bitartekoak. Sariak: 50.000, domina eta diploma. 25.000 PTAko akzesita. c) Pintura. Gai eta teknika libre. Sariak: 150.000, domina, eta diploma eta 50.000 PTAko akzesita. Lanak aurkezteko epea: ekainak 29.
- Arrigorriagako VII pintura eta marrazki lehiaketa. Eguna: ekainak 30. Marrazki modalitatean, maila ezberdinak finkatuko dira, adinaren arabera. Lanak Arrigorriagan bertan, kanpoan, aipatu egunean egin behar dira. Gaia: herriko edozein gauza. Sariak: a) Marrazkia: mailen arabera, 8.000-20.000 PTA bitartekoak eta diplomak. b) Pintu-

ra: 70.000, 40.000, 15.000 PTA eta diplomak. Inskripzioak: ekainaren 30ean.

• "El Papagayo" III umorezko narrazio saria. Gazteleraz. Sari bakarra: 3.000.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: ekainak 30.

• "Azorin" nobela lehiaketa. Gazteleraz. Gai libre. Dotazioa: 2.500.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: ekainak 30.

Unibertsitate-autobusak

- 91/92 ikasturtean Donostia edo Bilboko Unibertsitateetara eguneroko autobusez joan-etortzeko interesa dutenek izena eman dezakela Gazteentzako Informazio Bulegoan. Lehenbailehen.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkitu duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ

Eslu

ileapaindegia

Tfnua: 79 37 88  
Arrasate

FELIPE  
MADINA  
ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

## ETXEBIZITZAK

- **Erguinen etxebizitza salgai.** (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.
- **Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamendu-estudioa alokatzen dut.** Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- **Baserrira alokatu edo erosiko genuke Deba Garaian.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Peñiscolan sei pertsonarentzako bungalow-a alokatzen da uda osoan.** Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.
- **Lokala alokatzen da Uribe auzoan, 35m<sup>2</sup> eta erabiltzeko prest.** Informazioa: 79 84 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- **Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Dei egin 79 10 60 tfnora.
- **Gela bat bi oherekin olokatzen da.** Dei egin 79 07 73 tfnora.

## LANA

- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- **Taller batean lan egingo nuke mekanika apendiz moduan.** Tfnoa: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- **Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.

- **Edozel in egiteko prest nago, nahiz eta hispaniar filologian lizentziatuta izan.** Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- **Fisikarako eta kimikarako mailua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neskek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 99 17. M<sup>a</sup> Jesus.
- **Fisikarako eta kimikarako malsua behar da** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neska prest lanak egiteko.** Dei egin 79 49 05 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika).** Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 07 73.

## SALEROSKETAK

- **Kirola egin nahi dut, baina etxeko bizikletarik ez, akaso zeuk izango duzu saltzeko.** Neuk erosiko dizut. Tfnoa: 79 50 53. Josepa.
- **Vespa 200 motorra salgai.** Intermitenteduna, gutxi erabilia eta egoera onean. SS-U matrikulaz. Informazioa: 79 28 12 tfnoan. Javier.
- **Egoera onean dagoen Visa autoa salgai.** Aparteko gauza asko jarrita: lainoaren kontrako argiak, sabaian leihoa, etab. Tfnoa: 79 28 12.
- **R-14 GTL berebila salgai, ITVA pasatua.** Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- **Seat Ritmo salgai.** Dei egin 79 73 02 tfnora.
- **Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai, llanta, piñoi eta ardatz berriak.** Prezioa 50.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.

- **Neskendako paseorako Peugeot biziketa salgai.** la berria dago. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.
- **Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke.** Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.
- **Bi hilabete t'erdiko txakurkumeak salgai.** Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.
- **Bi gela bikoitzeako kanping-denda egoera onean salgai, abanize handiz, pasilo eta guzti.** Dei egin 79 40 40 tfnora.
- **Izozkitagialak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean.** Dei egin 79 23 58 eta 77 00 911fnotara. Rosi

## DENETARIK

- **Hiztetik hortzera ikusteko merke edo emateko daukazu telebista hori behar dugu.** X. Letona, A. Errasti, D. Goikolea eta J. Sarasua. Tfnoa: 79 10 93
- **Urrezko eskuturrekoa galdu nuen, harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean.** Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- **Txakurkume politak oparitutako dizkiogu ondo zainduko dituenari.** Arraza txikiak dira. Tfnoak: 79 66 45 edo 77 09 40.
- **Argazki makina eramateko poltsa bat aurkitu genuen Udalan.** Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Edurne) edo 79 52 80 tfnora. arratsaldez. (Miren).
- **Txakur txiki bat galdu dugu.** Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- **Nortasun Agiria galdu dut.** Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.



## ARRASATEN HILDAKOAK



- Pedro Iñarra Kortabarría,**  
ekainaren 4ean. 59 urte
- Marcelina Etxebarria Errasti,**  
ekainaren 5ean. 94 urte
- Milagros Agiriano Urrutia,**  
ekainaren 5ean. 55 urte
- Mateo Jimenez Amor,**  
ekainaren 7an. 85 urte
- Cristina Zeziaga Bolinaga,**  
ekainaren 6an. 67 urte

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Amaia Mendikute

### Bolondresa



- San Isidroak ala San Juanak? Biak. Nire urtebetetzea S. Juanetan da eta S. Isidroak nire auzoko jaiak dira.
- Autobusa ala berebila? Berebila.
- Soinua ala gitarra? Soinua.
- Marta Sanchez ala Madonna? Marta Sanchez.
- Urbia ala Degurixa? Biak.
- Idi-txuleta ala bixigua? Biak. Denetatik jaten dut.
- Telebista ala irratia? Telebista interesgarriagoa da. Orainxe bidali dut eskutiza *El Precio justora* ea tokatzen zaidan.
- Real ala Athletic? Real.
- Txandala ala bakeroak? Biak, baina txandala erosoagoa.
- Tailerra ala bulegoa? Tailerra.
- Ur gasduna ala gasbakoa? Gasbakoa.
- Negar egiteko filmeak ala abenturazkoak? Umeei buruzkoak.
- Lanbada ala tangoa? Tangoa. Nire aitak erakutsi zidan.
- Betaurrekoak ala lentilak? Betaurrekoak.
- Arropa erosteko, boutiqueak ala denda handiak? Denda handiak. Boutiqueak tristeak dira.
- Manikura ala makilaia? Makilaia.
- Ilehorriak ala beltzaranak? Ilehorriak.
- Zirkua ala jolasparkea? Jolasparkea.
- Eguna emateko, hondartza ala Landako urtegia? Mendia.
- Lepokoa ala eskuturrekoa? Biak.

# Igarkizunak

## Gizakiak

1. Zer ote da, zer, begi bistan dagoena, egunero jai eta hiltzen dena?
2. Bi anaia gorri: isilik, beti elkartuta, hitz egin nahi badute, orduantxe banatuta.
3. Ahizpa biritxiak berdin-berdin jantziak, gaez hilak egunez biziak.
4. Erantzuna erraza da gizonarentzat goizean, zein landare bustitzen da moztu behar denean?
5. Batzuenak meheak besteak gizenak, korrika egiteko beharrezko direnak.
6. Zabaldu eta itxi bi leiho txiki, batzuetan lehor besteetan busti, azpian sudurra gainean bekoki.
7. Bata beti gainean bestea haren azpian, hor daude zure gorputzean musuka denbora guztian.

Soluzioak:  
 1 = Ikusmena; 2 = Ezpainak; 3 = Begiak; 4 = Bizarrak; 5 = Oinak; 6 = Begiak; 7 = Ezpainak.

**Carrión  
música, s.a.**

**Musika-tresna guztiak.  
 Probetarako aretoa.  
 Etengabeko eskaintzak.  
 Zerbitzu tekniko. MIDI  
 informatikako  
 espezialitatea.**

Manuel Iradier 20, GASTEIZ, Tfnoa: 945 - 23 07 49

**K E I N U  
 M A S A I A**

Zarugalde 26, 1. ez. Tfnoa: 77 14 88  
 ARRASATE



Primo de Riveraren diktaturapean eratutako udal gorporazioa. 1923.

**1** 923ko irailaren 13an, Miguel Primo de Rivera, Kataluniako kapitain jeneralak estatu-kolpea jo zuen, Espainiako armadako gehienak alde zituela. Alfonso XIII.ak ere agintaritzan finkatu zuen.

Berehala, gobernu militarra antolatu zuen: Directorio Militar zeritzana. Gorteak eta partiduak desegin zituen, zentsura ezarri eta udalak eta diputazioak eraberritu.

Aldaketa guzti horiekin ordena jarri nahi izan zuen, langile mugimentua eta loratzen ari ziren haize nazionalistak itoz.


Hilabete baino lehenago, 23ko urriaren 2an, eratu zen Mondragoeko udalbatza berria, Diktaturaren eta Tapia Gobernadore Zibilaren aginduetara. Espainiako banderaz eta garaiko abadeen konpainian jarri ziren kamararen aurrean udaletxeko arkupeen ondoan.

Zenbakiak zibilentzat dira, letrak abadeentzat diren bitartean. 1. Ignacio Mondragon, zinegotzia; 2.

Alejandro Alzelai; 3. Emeterio Erguin, zinegotzia; 4. Francisco Pildain, zinegotzia; 5. Melquiades Jauregibarria, alkatea; 6. Julian Urrategi, zinegotzia; 7. Simon Arriaran, udaltzaina; 8. Laureano Arana, udaltzaina; 9. Prudencio Iraeta, idazkaria eta Jeronimo Mendikute, alkateordea.

Abadeei dagokienez, A. On Lorenzo Orue; B. On Hilario Lasaga; C. On Jose Joaquin Arin; D. On Francisco Imaz; E. On Prudencio Balerdi; eta F. On Pedro Eizagirre

**PUB HAIZEA**




**ENARA**  
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32




S. F. Xabier ikastola

Emango al didazu Arrasate Press?




Ezetz armatu zenbat auzpegi dauden hemen?



Zer jartzen du hemen?



- Ze animalia da?
- hartz txiki bat
  - desagertzeko arriskuam.
  - eukaliptoa jaten du.
  - erantzuna: op orook



Jarri itzazu irudi hauek laukietan



Zaku honetan dauden zenbat hiru harturik, artero irakurrien duzun aldirikari baten izena agertuko zauru

5. maila

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

## Ingelesarenak

1  
Ume batzuk kezka bat  
digute ekarri  
inglesa dela eta  
omen dabiltz larri  
"I am very bicycle"  
esanez elkarri.  
Horregatik bertsoak  
nahi ditugu jarri  
guraso askorentzat  
eskamentagarri.

2  
Eskolek badituzte  
beraien programak  
han bere lekua du  
inglesak ta danak  
baina ume gaixoeak  
badituzte lanak  
eskolaz kanpo hartuz  
egundoko zamak  
"inportantea dela  
esaten du amak".

3  
Guraso modernoak  
asko daude bertan  
inglesa sartu nahian  
seme alabetan.  
Proposamen bat daukat  
nik bertso honetan  
nola inportantea  
den bene-benetan  
matematika eman  
larunbat goizetan.

4  
Gurasoak zoratu  
dira hizkuntzekin  
inportantea zer den  
ezin dute jakin.  
Umeeak protestari  
nahi diote ekin:  
"nahiko lan badaukagu  
klasekoarekin,  
kokoteraino gaude  
ingelesarekin!".

5  
Orain arte ez zena  
batere arrunta  
hizkuntz akademitan  
milaka rekluta  
hainbestek inglesa nahi  
buru berotuta.  
Anormala normala  
dela sinistuta  
zer nahi dugu mintzatu  
eta zer izkuta?

6  
Inglesek lotsarik ez  
inglez hasteko  
nahiko dute munduan  
lasai ibiltzeko,  
ta guk berriz beste bi  
ikasi behariko  
hizkuntzaz gizakiak  
alkarren menpeko  
zapaldu behar al da  
modernizatzeke?

7  
Erreminta bat dugu  
hizkuntza bakoitza  
erabiltzen den sega  
jartzen da zorrotza  
erabiltzen ez dena  
herdoi ta amotza  
gure larre honetan  
sega fin arrotza  
horrenbestek zorrotzen  
ez al gera lotsa?

8  
Gurasoak ez izan  
moderno usteko  
ikastearen puruz  
burua nahasteko.  
Izango da astirik  
gauzak ikasteko  
haurrei baimena eman  
inglesa uzteko  
ume diren artean  
trankil jolasteko!!.

*Bertso School of Leintz.*

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

## 17 ASTELEHENA

- 19.30 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.  
 20.30 Bapirulauke, umeen saioa, aste honetan Umezaintzan grabatua.  
 21.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.  
 21.20 Erreportaia: Umeen danborrada eta Haur dantzarien eguna.



- 21.40 Alkate berria Arrasaten. (Errepikaldia)  
 22.00 Saltsa-maltsan. Jaione Olabek piña-pastela prestatuko du.  
 22.0 Berriak. (errepikaldia)

## 18 ASTEARTEA

- 12.00 Teletestua.  
 13.00 Bapirulauke (bezperakoa)  
 13.30 Berriak (bezperakoa)  
 13.50 Erreportaia (bezperakoa)  
 14.10 Alkate berria Arrasaten. (Errepikaldia)  
 14.30 Saltsa-maltsan (bezperakoa)  
 14.40 Berriak (errepikaldia)

.....  
**Datorren astelehenetik, eta udaparterako, ATBren programazioa ordubete atzeratuko da.**  
 .....

## 19 ASTEAZKENA

- 20.00 Teletestua, era guztietako iragarki eta abisuak  
 20.40 Ikumikaren azkena: Ikumika taldearen agurra.  
 21.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistekak.  
 21.20 Zenbat buru, hainbat aburu, Jose Mari Velez de Mendizabalek



- zuzentzen duen mahaingurua.  
 Gaia: San Juan jaiak.  
 22.10 Berriak (errepikaldia)

## 20 OSTEGUNA

- 12.00 Teletestua (bezperakoa)  
 13.00 Berriak (bezperakoa)  
 13.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)  
 14.10 Berriak (errepikaldia)

## 21 OSTIRALA

- 20.00 Teletestua  
 21.00 Berriak, ATBren albistegia, Begoña Garaik aurkeztua.  
 21.20 Erretratoa, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: J. M. Loiti, Oinakar-eko garentea.



- 21.50 Musikantoi, Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa.  
 Berriak (errepikaldia)

## 22 LARUNBATA

- 12.00 Teletestua  
 13.00 Berriak (bezperakoa)  
 13.20 Erretratoa (bezperakoa)  
 13.50 Musikantoi (bezperakoa)  
 14.30 Berriak (errepikaldia)

## SUKALDIAK


Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

# eya


Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07





# Nor Alkate?



Xabier Zubizarreta (HB)



Nekane Iglesias (PSOE)



Jose Mari Loiti (EAJ)

## Telebegi

ATBn bizi den aldaketa zurrumbiloen, programazioari buruzko neure eritzi batzuk bota nahi ditut gaur, inork bestelakorik uste badu bereak ematera anima dadin.

ATBren programazioan informatiboak dira izarra, ikusmin handiena sortzen dutenak. Eta horri eman beharko litzaioke lehentasuna, nire ustez. Areago. informatiboa egunoro ematearen aldekoa naiz, astelehentik ostiralera. Orain gogoratu egin behar dugu zein egunetan tokatzen den, eta ahaztea ez da bat ere zaila.

Horrez gain, informatiboen mamia ere hobe daiteke. Alde batetik, uste dut bi pertsonaren artean aurkezteak arindu egingo litzukeela, horrek aurkezle gehiago bilatzea eskatzen badu ere. Bestalde, berrien protagonistak gehiago sartuko nituzke nik saioan, nahiz platoon edo erreportaietan. Azkenik, bitarteko teknikoak ematen dituzten oportunitateak (lehiatilak, errutuloak...) ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira, horiek jazten bait dute azken emaitza.

Informatiboen ondoren, erreportaiak behar dute lehentasuna. Aste honetan ikusi ahal izango ditugun Rocioko erromeria eta Albina-ren omenaldia, adibidez.

Gainontzeko programak ez dira derrigorrezkoak. Aurreko bi arloak bete ondoren hasiko nintzateke neu horietaz arduratzen.

MIKEL IRIZAR

**H**auxe da egunotan denon ahotan dagoen galdera. Larunbatean, hilak 15eko eguerdian, argitu egingo da dena. ATBk erreportaiak berezia eskainiko du larunbatean bertan, arratsaldeko 15.00etan, eguerdiko plenoan gertatutako guztiaz: giroa, politikarien hitzak, botazioak... dena. Igan-dean, arratsaldeko 16.40etan, errepikatu egingo da erreportaiak.

### Launbata, 15.00etan

## Telebelarri

◆ Bi urte hauek politak izan dira niretzat; lagun eta oroitzapen ugari uzten ditut hemen. Eskerrik asko\*.

John Aldridge,  
Mondrasport saioan.

◆ Nire ustez, Mondra taldearen lekua hirugarren mailan baino gorago dago. Ez dakit non, baina gorago bai\*.

Inaxio Garrok,  
Mondrasport saioan




**A**steheneko erreportaietan **Umeen Danborrada** eta **Haur Dantzarien Eguna** eman dutenari buruzko irudiak ikusi ahal izango dituzue. Gaueko 21.20an izango da hori. San Juanetarako emanaldi bereziak prestatzen ari da ATBko taldea. Horretaz, datorren astean gehiago.



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Sentibera egongo zara maitasunean. Ezin izango duzu laguna zeureganatu, ahaleginduko zaren arren. Urdaila hor duzula somatuko duzu urduritasunaren ondorioz. Otorduak errespetatzea komenigarri izango zaizu.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Motelduta zegoen maitasun hori berpiztu egingo da berriz ere. Duda-mudatan zegoen bidaia hori egiteko egoera aproposa duzu oraingoa. Dena zure alde duzu. Etxeko harremana ere sendotu egingo da. Lasai ibiliko zara.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Arin sentitzen zara eta alde batetik bestera zabilta. Jendearekin gustora egoten zara zure ideiak aditzera emanaz. Zeure esparruan zaude eta horregatik sentitzen zara zeure buruarekin hain seguru. Belaunak zaindu.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Argi daukazu bai zuretzako bai zure ingurukoendako nahi duzuna. Konforme zaude daukazu narekin eta egoera honek lasaitasuna ematen dizu. Zure jarrera mesedegarria izango da bai zuretzat bai besteentzat. Ezusteko sorpresaren bat dator.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Egoera fisikoari eman diozu merezi duen baino garrantzi handiagoa. Hasi zara bestelako hutsuneak antzematen ere eta erren sentitzen zara nortasun aldetik. Bion arteko oreka lortzeko bane hausnarketa egin beharko zenuke.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Laguna eta bion arteko harremanean tirabirak izango dira biotako batek etsi ezean. Ideia berriak azalduko dituzu eta ulerkitzak egingo zaizkio besteari. Ez ezazu bizimodua gehiegi konplikatu. Konforma zaitez daukazu narekin.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Ikasten ari zaretenok kurtsoa egoki amaitzeko egoera aproposa duzue. Orain arteko esfortzua kontuan hartu beharko da halere, neke gabeko saririk ez bait dago. Besteok bizi-bizi egongo zarete edonolako beharrak bete ahal izateko.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Materian murgilduta zabilta, Libra, eta berebiziko garrantzia duten arloak, hala maitasuna nola besteekiko harremanak ahaztu samar dituzu. Baliteke norbait minduta egotea zure jarreragatik. Bapo jaten duzu aspaldian.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Edozeri ekiteko momentu egokia duzu oraingoa. Acuaris, bai lan arloan bai harremanetan. Orain arte itolarria sortzen zizkizuten harremanak sendotzeko une aproposa duzu. Zorte ona izango duzu edozein jokotan.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Ez duzu oso garbi edukiko benetan nahi duzuna zer den. Egoera iragankorra da. Ez kantsatu gehiegi burua, gurpil zoro batean baino ez zara murgilduko eta. Astebete pasa arte ez hartu erabakirik. Buruko mina.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Zu zeu izaten jarraitzen duzu eta ziurtasunez ari zara jokatzeko. Jarrera honek bane bakea ematen dizu eta tokian tokiko arazoak konpontzeko gaitasuna. Bidaia bat egiteko asmotan bazabiltza, egoera aproposa da oraingoa.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Eskuzabal egongo zara datozen egunetan. Hartuko duzun jarrera horrekin baliteke norbait zutaz maitemintzea. Bestearen arteko gaizki ulertuak konpontzen saiatuko zara eta batek baino gehiagok eskertuko dizu egingo diozun mesedea.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE



# ARRASATEko UDALA

## 1991ko LAN-ESKAINTZA

Arrasateko Udalak, honako lanpostuok beteko ditu, behin betiko izaeraz, 1991ko ekitaldian zehar:

Zenbat	Lanpostuak	Gutxiengo titulazioa	Hizkuntz eskakizuna
1	JAKINERAZLEA	Eskola-ziurtagiria	2
2	ADMINISTRARI LAGUNTAILEAK	Eskola-graduata, LH 1 edo baliokidea	3
1	UDALTZAIN KABOA	Eskola-graduata, LH 1 edo baliokidea	3
7	EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK	Erdi mailakoa eta EGA	TG
1	GAZTERIA ZERBITZURAKO TEKNIKARIA	Erdi mailakoa	4
1	UDALAKO IGE-ko ZUZENDARIA	Erdi mailakoa	4
1	OBRA ETA HIRIGINTZA TEKNIKARIA	Aparejadore eta abar	3
1	ARKITEKTOA	Arkitektura	3

Izena emateko epea irekitzen denean (Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean, hain zuzen) hala jakin eraziko da Arrasate Press eta egunkariaren bitartez.

Arrasaten, 1991ko ekainaren 10ean  
ALKATEA

# MUGARRI

## Berri-berriak



*Escort*



*Orion*



**Ford modelo berriak**